

## ERANSKINAK

### 1. Eranskina: Gurasoen eraginak seme alaben generoaren eraikuntzan

<i>Haur txikiaren portaera</i>	<i>Helduen interpretazioa eta erantzuna</i>	<i>Neskaren edo mutilaren garapenerako ondorio posibleak</i>
<b>Ezinegona</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutilak jolastu nahi du eta estimulatzen zaio</li> <li>• Neska urduri dago eta lasaitzen zaio</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aktiboa</li> <li>• Pasiboa</li> </ul>
<b>Negarra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutilari ez zaio negar egiten uzten</li> <li>• Neskari negar egiten uzten zaio</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bere emozioak kontrolatzen ikasten du</li> <li>• Bere emozioak azaleratzen ditu</li> </ul>
<b>Hizkuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adjektibo handigarrien erabilera mutilekin eta gutxiago hitz egiten da eurekin</li> <li>• Adjektibo txikigarriak neskekin eta gehiago hitz egiten zaie</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarra, nagusitasuna, komunikazio gaitasun gutxiago</li> <li>• Ahultasuna, gutxiagotasuna, hizkuntzarako gaitasun gehiago</li> </ul>
<b>Jolasak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutilarekin jolas bortitzagoak, fisikoagoak jostailu gehiagorekin</li> <li>• Neskekin jolas lasaiagoak jostailu aniztasun txikiagoarekin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarra, ausardia, domeinu espazial handiagoa, esplorazio posibilitate gehiago</li> <li>• Hauskortasuna, domeinu espazial txikiagoa eta esplorazio aukera gutxiago</li> </ul>
<b>Oldarkortasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutilengan normalizat kontsideratzen da eta desiragarria da</li> <li>• Ez da propioa neskengan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Independentzia eta defentsarako gaitasuna</li> <li>• Dependentsia, otzana eta zoritxarraren onarpen pasiboa</li> </ul>

1. Taula. Haurren portaerak eta familien erantzunak (Torres eta Arjona, s.d).

## 2. Eranskina: Hezkidetzaren ezinbesteko pilareak

1. Hizkuntzaren erabilera ez sexista: gaur egun, legediak agintzen duen bezala, derrigorrezkoa da hizkuntza ez sexista erabiltzea eta hala egin behar da ere hezkuntza zentroetan.
2. Emakumezkoen lana ikustea, bai historian zehar egindakoa baita gaur egungoa ere: editorialen materialek eta testu liburuek oraindik ikuspegi androzentrikoa izaten jarraitzen dute.
3. Sexismoari kritika agertutako edozein alditan: genero perspektiba dutenek eta berdintasuna ikasgeletara eramateko interesa dutenek, sexismoarekiko zero tolerantzia erakutsi behar dute ikasleen, irakasleen eta ikasgelan erabiltzen diren materialen artean.
4. Berdintasunezko maskulinitateak: maskulinitate tradizionalaren aurrean aldizkatzea dagoela erakutsi behar da, berdintasunezko maskulinitateak existitzen direla eta hurrengo koskak gehitu: erantzunkidetasun domestikoa, norberaren eta beste pertsonen zaintza, berdintasunean oinarritutako erlazio afektiboak eta sexualak...
5. Gatazken konponbide baketsua: bakean oinarritutako kultura eta hezkuntza emozionala.
6. Berdintasunean eta askatasunean oinarritutako sexu hezkuntza: amodio erromantikoaren mitoak, diskriminaziozko aurreiritzien aurkako borroka eta sexualitatea komunikazio gisa.
7. LGTB fobiaren aurkako borroka: fobia hau egungo matxismoaren, ignorantziaren eta gazteen zein nerabeen arteko erreferente positiboen faltaren erakuspen bat gehiago da.
8. Emakumeekiko indarkeriaren aurkako borroka: kontzeptuak argitu, indarkeriaren lehenengo sintomak detektatzen irakatsi eta aurreiritzien zein ezjakintasunaren aurka borroka egin. Sexualitatea, adiskidetasuna eta sentimenduak landu.

### **3. Eranskina: Laneko komisioren zenbait parte-hartzaileek bete ditzaketen eginbehar batzuen adibideak**

#### **Garbitzaileak**

- Mahaiak edo aulkiak erretiratzeko kolaborazioa eskatzen baldin badute, neska eta mutilei proportzio berean laguntza eskatzea.
- Mutilen batek garbitzeko tresnaren bat eskatzen badio hori hartzera animatzea eta horren inguruko komentario negatiborik ez egitea.

#### **Sukaldariak**

- Sukaldatzearekin zerikusia duen ekintzaren bat egiten bada, bai neskei bai mutilei zuritzen, nahasten, apaintzen... uztea, mutilei ardura gutxiko eginbeharrak ematea alde batera utziz. Adibidez “ekarri mahai horretan dagoen gatza”.

#### **Lore-zaintzaileak**

- Neskek erremintak hartzen baldin badituzte euren erabilera sustatzea.
- Loreak eskaintzen baldin badituzte, mutilei eta neskei ematea.
- Inurritegiren bat edo animaliairen bat deskubrituz gero, neska eta mutilei erakustea.

#### **4. Eranskina: Neska-mutilen jolasa aztertzeko itemak**

##### **Neskek zertara jolasten duten:**

Normalean mugimendu gutxiko jolasak izaten dira, sedentarioak, pasiboak eta espazio erreduzituetan burututakoak:

- Jolas sinbolikoa: Emakumearekin erlazionatutako akzioak eta eginbeharrak imitatzen dituzte.
- Jolas erritmikoak: Gurpila.
- Jolas errepikakorak: soka saltoa, pilota, elastikoa...
- Jolas logikoak: puzzleak, eraikuntzak, pintura.

##### **Garatutako jarrerak**

- Otzantasuna, lotsa, sumisioa eta konpetibitate eza.
- Konformitatea, lasaitasuna eta eskuzabaltasuna.
- Kooperazioa, inhibizioa, kontzentrazioa eta garapen intelektualak.
- Rol tradizionalen imitazioa eta mugimenduen erritmo zein koordinazioa.

##### **Genero rol sozialen ikaskuntzan zelan eragiten duten**

- Amatasuna eta lan domestikoa gain hartzea.
- Profesio estereotipatuekin identifikatzen dira: erizaina, irakaslea, garbitzailea, idazkaria...
- Neskek lanbide "femeninoak" aukeratuko dituzte.

##### **Mutilek zertara jolasten duten:**

- Mugikortasuneko jolasak, pertsekuzioa, borroka eta indarra.
- Eraikuntza jolasak: kotxeak, blokeak...

**Garatutako jarrerak**

- Konpetibitatea, oldarkortasuna, inbestigazioa eta gaitasun fisikoa.
- Arriskua, manipulazioa, protagonismoa eta ziurtasuna.
- Sormena, biolentzia, domeinua eta espazio tenporala.

**Genero rol sozialen ikaskuntzan zelan eragiten duten**

- Eraikuntza, teknika eta ikerkuntza bezalako izen handiko lanbideetara orientatzen dira.
- Lanbide “maskulinoak” aukeratuko dituzte.

**5. Eranskina: Gogoetarako galderak****Etxe txokoko jolas librerako galderak**

- Zer nolako lanak burutzen ditu emakumeak etxean?
- Zer nolako laguntza jasotzen du beste kideengandik?
- Noiz deskantsatzen du?
- Zenbat oporrak ditu?

**Imajinatutako egoerarako galderak**

- Nork egin du zer?
- Zenbat denbora deskantsatu du bakoitzak?
- Zer egin dezakete euren denbora librean?
- Nolakoak izango dira oporrak?

\*Ekintza honen bidez, zereginen banaketa potentziatzen da, sexu diskriminaziorik gabe jolastera bultzatzen zaie ikasleei eta neskeengan zein mutilengan euren egunerokotasunean independentzia potentziatuko duten gaitasunak garatzen dira,

## 6. Eranskina: Ipuinen genero desberdintasunak aztertzeke ereduak.

Torresek eta Arjonasek (s.d) ipuinek transmititzen dituzten genero desberdintasunak aztertzeke, lehenik eta behin, ikasleek ipuinetatik onartuta dituzten rolak aztertzea gomendatzen dute:

### Lehenengo sesioa

Ikasleak lurrean etzanda musika entzuten daudelarik, irakasleak gehien gustatzen zaien ipuinik gogokoenean pentsatzea eskatzen die ikasleei. Ondoren, hurrengoa galdetzen die: *ipuin horretako zein pertsonaia izatea gustatuko litzaizuke gehien? Zergatik?*

\*Ekintza honi esker, irakasleak ikasleria zer nolako ereduarekin identifikatzen den jakingo du.

### Bigarren sesioa

Familia bakoitzak ikasle bakoitzari zer nolako eredu transmititzen dion jakiteko, teknika bera erabili daiteke hurrengo galderak erabiliz: *Zer esaten dizu aitak/amak ezin dutela neskek/mutilek egin? Zer esaten dizu aitak/amak neskek/mutilek zer nolako jarrera izan behar duten inguruan?*

### Hirugarren sesioa

Aurretik asanbladan ikasleek espresatu dutenaren arabera, honelako ekintzak planteatu daitezke:

- Sortu diren gaiei buruzko debatea
- Istorioen dramatizazioa estereotipatuta ez dauden pertsonaiekin
- Aldizkako ipuinen irakurketa
- Ipuin tradizionaletako pertsonaien inbertsioa
- Ipuinen amaiera aldatzea
- Ipuinak asmatzea
- Asmatutako ipuinak antzeztea.

Moyasek (2008) aldiz, honako aspektu hauek ikertzea proposatzen ditu ipuinen genero desberdintasunak detektatzeko orduan:

- Pertsonai printzipalak: sexua, gaitasunak, akzioak, lanbideak.
- Protagonista maskulinoak eta femeninoak agertzen diren tokiak.
- Konpontzen dituzten egoerak.
- Agertzen ez diren tokiak.
- Erlazio neutroak
- Estereotipo sexistak al daude?
- Pertsonaien generoa aldatu eta zer gertatzen den ikusi. Istorioa berdina al da edo aldatu egin da? Zergatik?

## 7. Eranskina: Baimen eta konfidentzialtasun dokumentua

### PROIEKTUAREN DATUAK

**Izenburua:** Haur Hezkuntzako genero desberdintasunekin amaitzeko klabeak

**Deskribapena:** Eztizen Garai Mota naiz. Euskal Herriko Unibertsitatean, Bilboko Irakasleen Eskolan hain zuzen, Haur Hezkuntzako Gradua amaitzear dagoen ikaslea. Haur Hezkuntzako irakasle bihurtzeko eman beharreko azken pausoa Gradu Amaierako Lana burutzea denez gero, “Haur Hezkuntzako genero desberdintasunekin amaitzeko klabeak” izeneko proiektua egiteari ekin diot. Gradu amaierako lan hau Haur Hezkuntzako irakasleek, hezkuntzak eta gizarteak genero berdintasunean hezteko duten beharrianari erantzuteko tresnatzat erabili nahi da. Hori horrela, irakasleentzako eta familientzako baliagarriak izan daitezkeen klabeen eta estrategien berri emateko helburua du. Horrez gain, genero berdintasunean hezteko gizarteak ezartzen dituen muga horiek aztertu eta hobeto ezagutu nahi dira. Horretarako, azterketa bibliografikoaz gain, irakasleei elkarrizketak egin nahi zaizkie, euren zalantzak, mugak eta iritziak bildu ahal izateko. Horrela, etorkizunari begira, Haur Hezkuntzan eta hezkuntzako beste etapetan genero desberdintasunari aurre egiteko baliagarriak diren programak, baliabideak edo tresnak sortzeko bideak ireki nahi dira.

### ELKARRIZKETAREN AZALPENA

**Prozedura:** Elkarrizketa 8 galdera irekiez osatuta dago eta horiek azterketa bibliografikotik ateratako informazioan eta egile beraren interesetan oinarrituta daude. Elkarrizketa egin baino lehen parte hartzaileei galderak luzatuko zaizkie kezkarik edo zalantzarik balego, horiek argitzeko eta esango dutenaren inguruan denboraz hausnartzeko edota prestatzeko. Elkarrizketa hauek burutzeko erabiliko den metodoa ahots grabaketa da. Hala ere, argi utzi behar da parte hartzailea ahots grabaketarekin eroso sentitzen ez bada idatziz egiteko aukera emango zaiola. Behin informazioa bilduta, euren anonimotasuna bermatuz parte hartzaileek esandakoa idatziz transkribatuko da, gradu amaierako lanaren eranskinetan atxikitzeko eta lanean emaitza eta ondorio zabalagoak atera ahal izateko.

### PARTE HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

- **Boluntario izatearen klausula:** Ikerketa honetan zure parte hartzea borondetakoa denez gero, baimen hau atzera bota dezakezu edozein momentuan inolako azalpenik eman gabe eta inolako kalterik pairatu gabe.
- **Baimena baliogabetzeko eskubidea eta horren ondorioak:** Zure erantzunak erabili ez daitezzen baimenaren baliogabetzea aztertzailearekin kontaktuan jarritz egin dezakezu dokumentu honetan luzatuko diren aztertzailearen kontaktu datuak erabiliz. Horrek zure erantzun eta datu guztien ezabapena eragingo du.
- **Emaitza orokorrak edo indibidualak ezagutzeko baimena:** Ikerketa honetan parte hartzean, bukatuta dagoenean eskuratu diren emaitzei buruzko informazio osoa zure esku izateko eskubidea duzu. Hortaz, proiektua bukatzean zuzenean helaraziko zaizu.



- **Anonimotasunerako eskubidea:** Ikerketa honetarako emango dituzun erantzun eta datu guztiak konfidentzialak dira. Hortaz, legeek agintzen duten bezala, konfidentzialki tratatuko dira ikerketan azaldu dizugun moduan erabiliko direlarik. Modu horretan, ez da inoiz zure izena edo zu identifikatuko zaituen daturik emango.

*Ezer baino lehen, proiektu honetan boluntarioki parte hartzeagatik eskerrak eman nahi dizkizuet, zuen laguntzak emaitza eta ondorio zabalagoak, eta hortaz, lan aberatsago bat egiteko aukerak irekitzen dituelako. Edozein zalantza, kezka, informazio eskaera edo baimen honen baliogabetzerako 685717914 telefono zenbakia edo [eztizeng@hotmail.com](mailto:eztizeng@hotmail.com) posta elektronikoa erabiliz nirekin kontaktuan jarri zaitezke.*

*Dokumentu honetan ageri den informazioa irakurri dut edota irakurri didate. Honi buruz galdetzeko aukera izan dut eta egin ditudan galderak ondo erantzun zaizkit. Ikerketa honetan boluntarioki parte hartzeko baimena ematen dut eta edozein momentuan kaltetuta atera gabe atzera botatzeko eskubidea dudala ulertzen dut.*

2017ko .....-ren .....-n

**Parte hartzailearen Izen Abizenak:**

.....

**Sinadura:**

**Aztertzailearen Izen Abizenak:**

.....

**Sinadura:**

## 8. Eranskina: Irakasleei egindako galderak eta euren erantzunak

### GALDERAK

- 1- “Hezkidetzaz” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?
- 2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?
- 3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenean? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?
- 4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutilei desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?
- 5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberioa eman eta tenperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugaran izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?
- 6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?
- 7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?
- 8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?
- 9- Hitz egin al duzue inoiz familiekin eskolan hezkidetzaz lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?
- 10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?

## ERANTZUNAK

### ELKARRIZKETA: LEHENENGO TUTOREA, HH4.1

---

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Pertsonen hezkuntza, generoan oinarritu barik.

**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Gure aita-amen garaiko eskolak honetan oinarritzen ziren. Emakumezkoak josteko, umeak zaintzeko eta sukaldatzen ikasteko prestatzen zituzten. Gizonezkoek berriz, bestelako ikasgaiak zituzten eta horiek lan baterako, dirua irabazteko eta familia mantentzeko zuzentzen zituzten. Hau ikusita, aldaketa materialak egon direla argi ikusten da. Orain, beste pauso zailago bat eman behar dugu: estereotipoak eta urteetan finkatu dizkiguten eta ditugun ohiturak pixkanaka apurtzen saiatu eta lortu behar dugu. Hau urteetan egin beharreko lana da, txikitatik hasita eta gizarte osoaren laguntzaz.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenean? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Formakuntza berezirik, espezifikorik, ez behintzat. Hitzaldiren bat bai izan dut, baina hori da guztia.

**4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutilei desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Eskolak, Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan indar handia du. Umeek Haur Hezkuntzako etapan eraikitzen hasiko dira euren identitatea ostean, Lehen Hezkuntzan osatzeko. Gizarteak rol batzuk oso markatuta ditu eta ume batzuk oso kontziente dira pentsatuz eta sinetsiz rol horiek sexu identitatearekin lotuta doazela. Beraz, mutilek ezin dute mantala arrosa aukeratu, Olentzerori panpina eskatu edo ilea luzea eraman... txiki-txikitatik ikusten eta azaltzen dizkigute horrelakoak. Beraz, hau poliki-poliki denon laguntzaz azalpenekin eta adibide errealak ipiniz aldatzen joan behar dugu.

- 5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberoia eman eta temperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugan izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ez. Umeek imitazioz ikasten dute eta oso normala da gurasoak ere horrela ikusi dituztelako. Gelan trabarik ipintzen ez dizkigutenez eta frogatzen uzten diegunez, oso normala da umeak sukaldean lasaitasunez esperimintatzea, printzesez mozarrotzea, takoiekin ibiltzea eta rol ezberdinak hartzea.

- 6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?**

Bai. Gizarteak aldaketa handiak izan ditu. Momentu batean Haur Hezkuntzan oso txikiak dira. Beraz, haiek ulertu ahal duten neurrian, gehiago ez nahasten saiatuz, naturaltasunez eta konfiantzaz azalpenak jaso behar dituzte. Oro har galderak haiek plazaratzen dituzte eta hortik abiatuta, irakasleok elkarrizketaren ildo bideratu dezakegu

- 7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Ez. Haur Hezkuntzan umeak oso txikiak dira eta gu oso pentsu gaude. Tutorearekin egoten dira ordu gehienak. Beraz, horrelako zerbait ikusiz gero, berdin du zergatik baztertu, gaia sakonean landuko genuke enpatia ere aprobetxatuz.

- 8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Irakasleok aukerak eman behar ditugu. Ume bakoitza bere osotasunean emozionalki gustura egonez, naturaltasunez lagundu behar dugu eta gizartean bere lekua topatzeko estrategiak eskaini.

**9- Hitz egin al duzue inoiz familiekin eskolan hezkidetza lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzen dituzue)?**

Ofizialki, gure zikloan ez. Baina nagusienak bai inplikatzen dira. Hala ere, gure hezkuntza proiektuan, misioan eta balioen artean, bai.

**10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Bai. Hitzaldiak oso garrantzitsuak dira. Formakuntza, gurasoak, irakasleria pertsona guztietan eta gizartean telebista leku askotara heltzen den berria da. Kanpainak egin eta jendea kontzientziatu behar dugu. Hau, gure etorkizuna baita.

**ELKARRIZKETA: BIGARREN TUTOREA, HH3.1**

---

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna edo berdintasuna. Diskriminaziorik ez dela egon behar, denok berdinak garela eta horren inguruan diharduten gai guztiak.

**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Nire bizitzan zehar, ba beno 58 urte ditut eta nire nerabezaroan eta gaztetasunean oso argi ikusi dut: neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Eskolan neskekin eta mutilekin batera egoten hasi nintzen 12 eta 13 urterekin. Lehenago neskekin batera bakarrik. Klasean nahiz eta neska mutilak elkarrekin egon, zerrenda desberdinetan egoten ginen banatuta eta eserita. Beraz, praktikan aldenduta jarraitzen egoten ginen. Geroago, magisteritza ikasten hasi nintzenean, ba neskak eta mutilak elkarrekin egon gara. Baina gauzak ez dira berdinak izan inoiz. Lanak, jolasak, harremanak, etxeko ardurak... desberdinak izan dira bai neskentzako bai mutilentzako betidanik. Gero, hemen nahiz eta lanean 30 urte eraman, desberdintasunak egon dira ere bai. Izan ere, beti egon dira neskek eta mutilek bereziki egiten zituzten gauzak. Orain bateratuagoa dago. Haur hezkuntzan ahalegintzen zara dena berdina izateaz edo etxetik umeei dakarten “kutsu” hori (edo ez dakit zer den) apurtzen baina hori hor egoten jarraitzen du, hori egunerokotasunean ikusten dugu zuk, nik eta denok: futboleko jolasten duten mutilak adibidez. Orain nahiz eta panpinekin jolasten duten mutil gehiago egon, kanpoan ikusten ditugu harremanak nolakoak diren, desberdindu egiten

gaituztelako oraindik eta ez gara berdinak. Hau da, “genero berdintasuna” kontzeptua ”makillatuta” dagoela uste dut, nahiz eta mundu guztiak horri buruz hitz egiten duen eta hitz egin nahi duen.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenean? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Honen inguruan bereziki, ez dut izan inolako formakuntzarik. Gero profesional moduan zenbait artikulua eta liburu irakurri ditut eta gauza batzuk praktikan ipintzen saiatu naiz. Gero, noizbait ikastaro txikiren bat egin dut baina horrela, bereziki, ez.

**4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutilei desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Nik uste dut irakasleak direla eskolan generoaren eraikuntza hori apurtzeko edo berdintasuna lantzeko arduradunak. Ni pertsonalki hezkuntzan beti saiatu naiz desberdintasunik ez egiten. Ez dakit kanpotik ikusten duen pertsona batek umeekin izaten dudana jarrera zelan ikusten duen. Ziur gaizki dagoen zerbait dagoela, baina ni neuz ez naiz konturatzen ahalegintzen naizelako guztiak berdinean tratatzen, balore berdinean irakasten eta guztien artean berdintasuna goraiatzeko. Adibidez, denok gara berdinean, denok ahal ditugu gauza berdinean egin eta hemen ez dago nesken eta mutilen gauzarik. Hau da, nire umeenganako trataerak ume bakoitzaren nortasuna kontuan hartzen du. Ume bakoitza nolakoa den ikusten ahalegintzen naiz, ez ume bakoitza zer den (neska edo mutila) bakoitzak beharrezko desberdinekin baititu. Dena den, nik uste dut eskolak berak ez duela ikasleen generoaren eraikuntzan eragiten, izan ere, nire ustez hori familien asuntua da, etxetik datorren zerbait. Beti izaten dugu “nik ez dut nahi nire semea tximeletaz edo lorez moztutzea nahi” esaten duen aitaren bat edo “nire aitak esan dit mutil batek jotzen banau, berari fuertean jotzeko” esaten diguten umeak. Nesketan aldiz, horrelakoak normalean ez dira entzuten. Askotan ere entzun izan dut “zuk ezin duzu jolastu, neska zarelako” hori guk ez dugu transmititzen, eskola kolektiboa da eta ume bakoitzak kanpotik ekartzen ditu ezaugarri horiek. Hau da, familietatik datorren edo kanpoko zerbait da.

- 5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberoia eman eta temperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugan izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ez. Gu txokoetan lanean egiten hasi garenetik hori bultzatu dugu, denok egin behar izan dugun gauza bat izan da eta normaltzat hartzen duguna.

- 6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?**

Bai, lehen esan dudan moduan egunerokotasunean lantzen dugu. Denok kapazak garela gauza guztiak egiteko eta abar. Momentu honetan umeak oso txikiak dira, 3 urte dituzte. Beraz, aipamenekin eta egunerokotasunean lantzen dugu. Eskolari dagokionez, bere osotasunean ez dakit bakoitzak zein programan daukan.

Lehentasunezko gaia izateari dagokionez, ba bai, gaur egun gizartean ez dagoelako barneratuta. Telebista ipintzen duzunean adibidez, politika mailan, genero erasoak aipatzen direnean, lan mundua... ikusten duzu emakumea ez dagoela bat ere errekonozituta.

- 7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Izan dut baina ez dut arazorik izan. Hau da, inoiz izan dut genero batekin gehiago identifikatzen zen neska edo mutila baina bereziki, ez dut ezer landu arazorik egon ez delako.

- 8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Ez zait esandakoaz aparte ezer gehiago bururatzen. Baina uste dut orokorrean planteatutako gauza bat izan beharko litzatekeela, ikastetxe handia garelako eta

esparruka egiten dugu dena. Horrek nire ustez, ez dauka zentsurik guztiok batera egin beharko baikenuke lan.

**9- Hitz egin al duzue inoiz familiekin eskolan hezkidetza lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?**

Ez dugu planteatu uste dudalako gure guraso bilerak oso bideratuak direla. Guk planteatzen dugu gai ordena eta gehien bat gu gara urtean zehar landuko duguna edo egin behar duguna aurkezten dugunak. Nire ustez, beste planteamendu bat egon beharko litzateke gurasoen bilerak egiteko orduan. Gurasoekin beste modu batean landu behar dugu. Adibidez, tailerrak egiten eta beste hainbat ekintza egiten. Eta hezkidetza, oso gai garrantzitsua izango litzateke beraiekin klasean lantzeko, denok batera guraso taldean lantzeko eta abar.

**10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Besterik ez zait bururatzen, nik uste dut dena esan dudala.

**ELKARRIZKETA: HIRUGARREN TUTOREA, HH4.2**

---

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Galdera hau irakurritakoan, begirale ikastaroa egin nuen unea etortzen zait burura, hori izan baitzen hezkidetza entzun nuen lehenengo aldia. Nik bestela ikastetxean eta ikastolan txikia izanda ez nuen horrelakorik gogoratzen. Begirale ikastaroa egiten hasi nintzenean, gogoratzen dut hezkidetza ikastaroaren blokeetariko bat zela. Hori gogoratzeaz gain, zer zen ere etorri zitzaidan burura: berdintasunean edo genero berdintasunean hezteko teoria edo dena delakoa. Nik behintzat horrekin lotzen dut.



**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Ikasle moduan esan dudan bezala, begirale ikastaroa izan zen kontzeptu honekin harremandu nintzen lehenengo aldia. Gero unibertsitatera sartu nintzen eta hor berriro ere entzun nuen. Horrez gain, gaur egun unitate didaktikoak egiten dituzunean, helburuetan beti topatzen duzu normalean hezkidetzaren inguruko zerbait.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenen? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Batez ere, komentatutakoa. Egia da ikastetxean zerbait jorratzen dela. Nire garaian adibidez, etika ematen zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailan eta nik suposatzen dut horrelakoak jorratzen zirela. Ez dut gogoratzen zehazki zer nolako edukiak lantzen genituen, baina bai gelan noizbait eztabaidak edo gatazkak sortzen zirenean komentatzen genituela eta irakaslea beti saiatzen zela bideratzen. Hala ere, bereziki hezkidetz hitzarekin edo berdintasunaren inguruan zerbait zehatz landu izana ez dut gogoratzen.

Profesional moduan komentatutakoa, begirale diploma jasotzeko Urtxintxa eskolan asteburu oso bat eman genuen hezkidetzaren inguruan edukiak lantzen: zer zen, zelan ulertzen genuen guk, gizartean zelan lantzen zen eta gero hori lantzeko baliagarriak ziren jolasak... Eta gero unibertsitatean zenbaitetan entzun dut baina hezkidetzaren inguruko kontuak, batez ere, etxean jasotzen dituzu. Hau da, ez dagoela formakuntza zehatzik honen inguruan unibertsitate mailan edo eskola mailan.

**4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutilen desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Bai eskolak baita irakasleek zerikusi asko dugu honekin. Baina eskolan osotasunean hartuta, zorritzarek gaur egun gizartean bezala neska eta mutilaren bi rol horiek asko banatzen dira eta nahiko korapilatsua da. Izan ere, gaur egun genero identitatearekin sartzten gara eta ez bakarrik fisikoki edo biologikoki garenarekin baizik eta zelan sentitzen zarenarekin. Baina nik uste dut nahitaez desberdintasunak markatzen dituzula. Adibidez, tontakeri huts bat dirudi baina zuk ume batek gainean pixa egiten duenean edo bustitzen denean, aldatzeko arropa izan behar duzu ikastolan eta nik pixa

egin duen umea jantzi izan dut. Bestetan aldiz, ez dut ikusi mutil bati kirol jertse arrosa bat zelan jantzi dioten. Beti saiatzen zara neskei leotardo jakin batzuk eta mutilei beste koloredun arropa batzuk jartzen edo mozorrotzeko orduan mozorro mota kontuan izaten.

Nire kasuan, adibide bezala, lehenago ohitura nuen umeei “printze” eta “printzesa” esateko. Eta benetan, hor sartu dezakegun mezu ezkutatu hori oso esanguratsua da eta era inkontziente batean jasotzen duzu. Batzuetan aitortu behar dut eskapatzen zaidala baina saiatzen naizela adjektibo horiek edo hitz horiek ekiditen eta horien ordean “lantzana”, “artista” eta “txapelduna” bezalako hitzak erabiltzen.

Horrez gain, detaile askotan eskolak desberdintasunak markatzen dituela uste dut. Adibidez, hemen ostiral honetan kirol eguna ospatuko dugu ikastolan eta askotan ikastola honetan hainbat ekintza edota ospakizun burutzen dira eskola mailan. Eta zelan esaten dugun beti, ekintza hau burutzeko gela bakoitzeko neska bat eta mutil bat behar ditugu. Eta zergatik ba neska eta mutil bat? Ba batzuk uler dezaket pentsa dezaketela hor berdinketa bat egiten ari garela, baina bestetik, agian, beharrezkoa ez den sailkapen bat egiten ari gara. Izan ere, markatzen ari gara hor, neska eta mutila. Ba ez, umeak dira denak. Eta horrela uste dut desberdintasunetan eragiten duela eskolak, gehien bat.

**5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberioia eman eta tenperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zuegan izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ez, normalean ez. Umeak dira eta normalean ez. Sorpresa jaso izan dut umea mutila zein neska izanda baina izaeragatik, ez sexuagatik. Horietariko bat etxe txokoan egon bada adibidez baina lasai egonik.

**6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?**

Bereziki, ez da lantzen. Hau da, ez dago gai zehatz bat berdintasuna edo hezkidetza lantzen duena. Baina nik uste dut, hezkidetza bereziki lantzearen alde ez nagoela. Azken finean dena da errespetua eta berdintasuna. Hau da, nik hezkidetza terminoa orokortuko nuke. Eta hori bai, egunero lantzen da. Adibidez, askotan esaten da gelan, “hau neskena da”, “hau mutilena da” edo mutilok jolastuko dugu gaur. Ba horrelakoak suertatzen direnean esaten diet hori ezetz, ez dela horrela. Beste egunean

adibidez, nire klaseko umerik baxuenari “pequeñajo” esan zioten eta bera oso txarto sentitu zen. Ba hori horrela izan ez dadin, maila berean jartzen dut. Era horretan lantzen dut, errespetuan eta berdintasunean. Hau da, bakoitza sentitzen denarekin eta gustura dagoenarekin errespetatzearekin.

Zentroari dagokionez, berez ez dago zerbait sortuta gai hau lantzeko. Programaketaren barruan ez dago. Egia da, programaketaren azpi punturen bat hartzen baduzu, zehazki ekintzaren bat badagoela baina ez dago berez horrela puntu zehatz baten moduan sartuta. Bai egiten dena da, kanpainak etortzen direnean adibidez emakumearen eguna, sexuari eta genero identitateari lotutako errespetua landu. Beraz, noizbait horrelako kanpainarik badaude, ba lantzen dira. Baina niri behintzat ez didate helarazi besterik.

Baina argi dago landu beharko liratekeen lehentasunezko gaiak direla. Guztiz. Baina lehen esan dudan bezala, hezkidetzaz gain, arrazakeriaren kontrakoa edo hemen egiten den Sahararen alde egiteko janari bilketaren kanpaina oso aberasgarria iruditzen zait umeekin lantzeko. Nire ustez, umei helarazi behar zaien mezua da desberdintasunaren berdintasunean hezi behar direla eta hori errespetatu behar dutela haiek bezalakoak ez diren pertsonak aintzat hartzen dituztelarik. Hemen adibidez, askotan azpimarratzen diet bakoitzak bere erritmoa duela. Izan ere, idazten hasi dira eta batzuk oraindik oso motelak direnez, arinagoak direnak eurekin sartzen dira eta orain hori gertatzen denean “bakoitza bere erritmora” esaten dute, horixe delako nik azpimarratu didana. Horrelako gauzak txikitatik ikasi behar dituzte.

**7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Ez. Ez dut horrelako kasurik izan, egia esan. Baina izango banu, aurretik aipatu dudan era berean landuko nuke. Errespetatu behar dutela. Hala ere, bai izan ditut (ez ditut ume desberdinak esan nahi) baina bere izaeragatik eta fisikoki zituzten arazoengatik desberdintasunak antzematen zitzaizkien umeak. Gainera, beste umeek berehala antzematen dituzte horrelakoak, beraientzat “normala” ez den kide bat ikusten dutelako. Baina horrelakoetan, azaltzen duzu bakoitza den bezalako delatela, errespetatu behar dela eta ulertu egiten dute. Nire esperientzia pertsonalak zentsu horretan oso onak izan dira. Familiarekin ere hitz egin izan dut eta umearen inguruko pertsona guztiak ados egonda, eta jarrera berdina izanda nik uste dut emaitza positiboa izango litzatekeela.

**8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Nik uste dut lehen komentatutakoa. Adibidez, neska eta mutilarena; ez? Horrelako detaileak. Detaile txikiak dira eta batzuk nik ikusiko ditut eta beste detaile batzuk beste batzuek ikusiko dituzte, ni ere bai horien barnean sartzen bainaiz, adibidez “printzesa” eta “printze” komentarioekin. Ni askotan saiatzen naiz, ez dakit ondo edo txarto dagoen baina neska bat etxe txokoan beti printzesaz mozorrotu nahi bada, ba saiatzen naiz esaten, “gaur zergatik ez printzea?”. Eta ostiraletan gauza bera, beti aurpegiak marratzen ditugunez, neska guztiek printzesaz nahi izaten dute eta hor galdetzen diet “gaur zergatik ez erregea?”. Batzuetan konbentzitzea lortu diet eta egun horietan ezberdin joan dira marratzuta. Beste batzuetan aldiz, ez. Baina uste dut ez diegula ezertara derrigortu behar. Behin gogoratzen dut ume batek esan zidala erregez nahi zuela eta kontrakoa galdetu niola “zergatik ez printzesaz?” eta baietz esan zidan. Beraz, koroa eta guzti margotu nion eta poz-pezik joan zen. Bere lagunek esan zuten barre eginez: “Aaa! Begira! Printzesa bat da! Jajajaja!” eta nik, ba bai, zergatik ez? Gaur printzesaz bete dugu gela. Eta guztiak pozik eta barrezka modu onean, ontzat hartu zuten.

Hortaz nire ustez, horrelako detaile txikiekin desberdintasunen kutsu hori aldatu ahal dugu. Izan ere, milaka detaile daude egunero ikusten ditugunak. Buelta bat eman beharko genioke horri eta kanpaina zehatz bat egin beharrean, egunerokotasunean oinarritu beharko ginatke.

**9- Hitz egin al duzue inoiz familiarekin eskolan hezkidetzaz lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?**

Nik lehen esan bezala, orokortu egiten dut eta errespetuaren inguruan hitz egiten dut. Familiei oso argi uzten diet beti hemen zelan tratatzen ditugun gai eta arazo guztiak, umeei esaten diedala beti ahoa hitz egiteko dugula eta hori dela gure trataera. Eta gai honen inguruan bereziki, ez ditut gurasoekin elkarrizketarik izan. Beti zentratu da umeen arteko harreman batean eta gurasoak arduratuta badaude, beti saiatu naiz gurasoekin hitz egiten, horiek lasaitzen eta gauzak konpontzen.

Hala ere, nik uste dut zaila dela hezkidetzaz lortzeko gurasoen inplikazioa lortzea, baina lortu ahal dela. Horretarako, lehenengo pausoa dudarik gabe, gudan dago.

Lehenik eta behin, gu konbentzituta egon behar gara guztiz eta gurasoak konbentzitzeko, zu zentsu horretan komertziala izan behar zara produktua azalduz. Baina ziur egon behar zara. Ziur bazaude, ba agian lehenengo urtean eta horrelakoetan kostatuko da. Dena den, orain dauden gurasoen belaunaldiak ez dira orain dela 13 urtetakoak. Hau da, nik nire adineko (30 urteko) gurasoak dauzkat. Esan nahi dut, oso erraz uler dezaketela. Agian nire amamak eta amak ez, gehiago kostatuko zaie. Baina nahiz eta nire belaunaldiko batzuei kostatu, normalean ulertuko dute, horrekin hazi baitira, ez?

Inplikazio hori nire iritziz lortu beharko genuke. Baina oso mugimendu handia da. Azkenean gizarteak eskola beste modu batean ikustea da, beste era batera jasotzea... eta familien eta eskolaren arteko inplikazio hori, askotan komentatu izan dugun moduan, harreman publiziatarioa da. Ez dago harreman errealik. Izan ere, ni gurasoekin oso ondo harreman izan naiz, baina gero ez dute hemen sartzeko aukerarik, zerbait falta da hor. Zergatik ezin da adibidez, egun batean gurasoren bat klasera zerbait azaltzera etorri?. Baina beno, uste dut baietz, lortu ahal dela eta hasi beharko ginatkeela bileretan guretzat inportanteak diren gaiak jorratzen. Baina noski, guri ere bai gidoi bat pasatzen digute bilerak egiteko... oso bideratuak dira... hala ere, itxaropena ez da galdu behar.

**10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Goraipatzea inportantea dela, hezkidetza egunerokotasunean joratu beharko genukeela ez baita momentuko kanpaina bat bakarrik. Hasieratik landu behar dela, etxean ere landu behar dela, egunero guk txikitatik jaso izan ditugun detaileengatik eman ahal dizkiegun ekarpen horiek zaintzen eta aztertzen hasi beharko ginatkeela eta pixkanaka aldatzen joango litzatekeela.

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Hezkidetza niretzat berdintasuna da, bai mutil eta bai nesken artean. Baina bueno, arlo guztietan ere bai: lan munduan, eguneroko zereginetan...

**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Nire amamak kontatzen zuenagatik, nik ezagutu dut nire gurasoen kasua eta gero geurea. Nire amama baserritarra zen eta baserrian lan egiteaz gain, etxeko gauzez eta umeez arduratu behar zen. Askotan esaten zuen “jo, gizonak siestara joaten dira eta ni lan eta lan”. Gero, nire gurasoen kasuan, adibidez nire amak ez du inoiz lanik egin, beti egon da etxean. Baina beno, garai horretan jada ezberdina zen, askotan ama etxean egoten zen eta ardura gehienak amarenak ziren. Adibidez, gu gaixotzen ginenean gurekin ama medikura joaten zen edo ikastolako batzarretara ama joaten zen. Agian biek lan egingo balute, horrelako ardurak bien artean banatuko lituzkete baina ez dakit. Baina egia da asteburuetan aitzak libre zuenean berak egiten zituela erosketak edo amari laguntzen ziola etxea garbitzen, kasurako. Hortaz jada amamak kontatzen zuena ez da guk etxean bizi izan duguna. Nahiz eta orain emakumezkoek pisu gehiena edo handia duten kasu asko egon, orain lana banatuagoa dago. Hezkuntza alorrari dagokionez, nik mutilekin batera ikasi dut.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenean? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Eskolan adibidez, arlo guztietan berdintasuna zegoen bi sexuentzako. Baina gorputz hezkuntzan, gogoratzen dut froga batzuetan bageneuzkala neskek froga bat eta mutilek beste bat: pisua, indarra, abiadura... Horretan desberdintasunak zeuden baina beste ikasgaietan ez. Horretaz aparte, ez dut berdintasunean edo hezkidetzan oinarritutako ikasgai edo formakuntza saio zehatzik izan ez eskolan ezta unibertsitatean. Nik behintzat ez dut gogoratzen. Profesional moduan, bakoitzak dakienez jartzen du abian, bere kontura, ez didate inoiz ezer eman edo irakatsi gai hau zelan jorratu dezakedan ikasteko.

- 4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutileri desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Eskolak berez, Haur Hezkuntzan nik ez nuke esango horrelako desberdintasunak transmititzen dituenik. Eginez gero, gu geu, irakasleak gara azken batean transmitituko genituzkeenak. Hau da, gure esku dago dena. Edo gu edo familiak ere bai. Izan ere, nik gogoratzen dut lau urteko gelan izan nuen mutil bat tamainaz oso handia zena eta mantala arrosa zuena. Orduan, mantala ekarri zuen lehenengo egunean, arreta deitu zigun. Baina, zergatik ez du ekarriko mantala arrosa neska batek urdina janzten duten bezala? Azken batean, gu gara horren bideratzaileak. Hots, alde baterantz edo besterantz bideratu dezakegunak. Mutil batzuek atzazalak margotuta ekartzen dituztenean bezalaxe, margotuta ekartzen dituzte besterik gabe, eta kito.

- 5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberioa eman eta temperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugaran izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ez, gaur egun ez. Agian nire amaren edo amamaren garaian bai zela harritzekoa. Baina garai honetan nik uste dut beraiek etxean hori ikusi dutela eta hortaz, umeei dena imitazioz egiten dute. Horregatik, ez dut harritzeko gauzat hartzen, gauza normaltzat baizik.

- 6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?**

Unitatearen arabera, badaude unitate didaktiko batzuk adibidez, gorputza lantzen dutenak. Hor bai landu ahal dela, batez ere lau eta bost urteko gelan. Hau da, agian beraiei gehien kezkatzen zaien gairen bat. Orduan hor bai bideratu ahal duzula. Ba ez dakit... Gabonetan adibidez, jostailuak eskatzen hasten direnean “ba hau neskentzat/mutilentzat da” esaten dute. Ba ez, guztiontzat dela esaten diezu, jostailuak direla eta mutil batek pampina eta hori paseatzeko karroa eskatu ahal duela eta neskak kamioia eskatu ahal duela. Horrela “apurketa” hori egiteko. Hiru urteko gelan aldiz, nire

ustez hori ez da hainbeste ematen. Baina lau eta bost urteko gelan bat hasten direla horrelakoak esaten edo arroparen inguruan, neskentzat zein den eta ez esaten.

Zentroan bere osotasunean hartuta, ba ez da lantzen ez baitago guztiok modu berdinean gai hau jorratu ahal izateko programaren bat edo ezer prestatuta. Guk, urtxintxa proiektuarekin lan egiten dugunez, irakasleok unitate horiek landu behar ditugu. Gero, unitate horien barruan zer bait irteten bada, hau da, ipuinak horrelako zer bait tratatzen badu, gelan horrelako elkarrizketaren bat atera daiteke. Baina esan bezala, irakasleak egiten du hori.

Lehentasunezko gaiak izateari dagokionez, bai. Askotan gauza batzuk ekidin ahal izateko garrantzitsua da. Ume batek adibidez mantala arrosa ekartzen badu, besteek barrerik ez egiteko eta halakoak.

**7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Ez, nik hemen Haur hezkuntzan mantala arrosa ekarri zuen ume hori izan nuenean beste umeek ez zuten ezer esaten. Onartu zuten ikusi zutelako hasieratik berak mantala arrosa ekartzen zuela, beste barik. Hemen etxetik jostailuak ekarri ezin dituztenez, ez dut inoiz ikusi patioan norbaiti zirika edo dena delakoa egiten ikusi. Bueno, iazko taldean neskekin beti jolasten zuen mutil bat eduki nuen. Mutikoa nahiko lasaia zen, ez zuen inoiz beste mutilekin borroketara edo futbolera jolasten eta abar. Baina Lehen Hezkuntzara pasa zenean, bere irakasleak komentatu zidan lehenengo mailan etxetik jostailuak ekar ditzaketela eta mutikoak klasera “barbie” panpinak eta horrelako gauzak ekartzen zituela. Horren ondorioz, besteek barre egin zioten esanez “Aaa! Beitu zer ekarri duzun! Hori nesken jostailuak dira!”.

Hori ikusita, nik uste dut horrelako gauzak tratatu egin behar direla gelan. Umeei ulertaraziz ez dela ezer gertatzen. Hau da, neska batek egun batean panpina ekartzen badu beste egunean, kamioia ekar dezakeela. Jostailuak direla eta edozeinentzako direla. Horrela, bai gelan edo patioan ikusten dituzun arazoak oinarri hartuta, haurrekin hitz eginez nik uste dut tratatu ahal direla.



- 8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Haur Hezkuntzan adibidez, gai hauek ipuinen bidez tratatzea ez legoke txarto egongo. Azken batean 3, 4 eta 5 urteko umeak dira eta agian gelan honelako gaiak hitz egitearekin bakarrik ez duzu asko lortzen eta ez dizu hainbesterako ematen. Baina ipuin baten bitartez landuta agian, zerbait gehiago lortzen duzu. Horma-irudi bat egitea agian, beste aukera bat izan daiteke, beraiei motibagarria eta hurbila iruditzen zaien zerbait emanik.

- 9- Hitz egin al duzue inoiz familiekin eskolan hezkidetzaz lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?**

Egia esan horrela esanda... gaia ateratzen bada haiekin batzartzen naizenean bai. Baina bestela, guraso batzarretan ez dago horrela puntu zehatz bat gai hori tratatzeko. Hala ere, egin daiteke beste lan bat izango balitz bezala. Adibidez, lanbideak lantzen ari bagara gurasoren bat etorri daiteke bere lanbidea azaltzera. Baina ez da erraza edo ez da eskola honetako errealitatea. Gainera, Haur Hezkuntzan gai hau tratatzeko zailtasun gehiago daude Lehen Hezkuntzan baino, umeek gai hori 3, 4 eta 5 urterekin ulertzeko zailtasun gehiago dituztelako.

- 10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Ez.

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Burura datorkit genero desberdintasuna gainditu eta batez ere, pertsona guztien berdintasunean oinarritzen den hezkuntza sistema bat. Genero desberdintasunak kanpoan uzten dituenak eta pertsonak hartzen dituenak oinarri, inolako bereizketarik gabe. Bere banakotasunean, bere ezaugarriekin...

**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Azken urteetan aldaketa handiak egon dira gaiaren inguruan baina batez ere, ikuspegia zabaldu egin da eta lanketa ugari proposatzen dira hezkuntzaren munduan. Orain dela urte asko, eskola mistoak bultzatu egin ziren eta gaur egun, ohartu gara ikerketen ondorio moduan gure esku hartzeko modua aldatu behar dugula. Bestetik, aldaketa asko egon diren arren, datuek diote oraindik aldaketa sakonagoa izan behar duela emaitzak ez baitira egokienak. Izan ere, desberdintasun ugari daude eta handiak dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Gainera, hezkuntza sistemak horiek indartzen ditu.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolakoa zen ikasten ari zinenean? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Unibertsitatean, zuzenean irakasgaietan ez dugu lanketarik egin. Beti izan dira zeharkakoak. Nik mintegi ezberdinetan parte hartu dut, formakuntza saioetan eta gaiaren inguruan informazioa jaso eta barneratu dut. Baina egia esan, lanketak ez dira inoiz zuzenak izan. Mintegi horiek Eusko Jaurlaritzak eta Berritzeguneak antolatutakoak zein gidatutakoak ziren. Baina esandakoa, horietan parte hartu dut baina irakasle izateko prestakuntzaren barruan ez nuen horrelakorik jaso. Mintegi horietan parte hartzea ikastolak berak eskaini egiten digu eta horietan parte hartu ondoren jaso ahal izan ditut ezagutzak eta ikuspegi orokor hauek.

- 4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutileri desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Eskolan transmititzen diren jarrerak, ezaguerak eta balioek funtsezko eragina dute haurrengan. Haurrek osatuko dute etorkizuneko gizartea eta haiek aldatu ahal izango dute gizarte hori. Baina era berean, ezin dugu ukatu gizarteak eskolan duen eragina. Gaur egun eragin handia du eta desberdintasun hauek ere hezkuntzan islatzen dira. Beraz, leku pribilegiatua da eskola aldaketa guzti hauek sustatzeko. Eta bestetik, jarrera, balio eta ezaguera zuzenen transmisioa funtsezkoa iruditzen zait. Horretarako, irakasleek eta hezitzaileek formakuntza behar dute eta adituak izan behar dute gai zehatz horretan. Baina ez bakarrik irakasleek, eskola osoak baizik. Eskolak ez du bakardadean edo isolaturik lan egin behar. Izan ere, testuinguru, gizarte eta errealitate baten barnean dago eta familiekin, haurrekin, komunitate osoarekin zein hezitzaileekin aritu behar da lanean guzti hau aldatzeko.

- 5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberoia eman eta temperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugarian izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ez, eta ez zait egokia iruditzen. Ez nuke horrelakorik egingo, ez natorrelako bat ikuspegi horrekin. Erantzun hori, jatorriz desegokia iruditzen zait hezkidetzaren aurka doalako eta genero desberdintasuna egingo nuke horrelako erantzun bat erabiliz gero.

- 6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko lirakeela uste duzu? Zergatik?**

Bai, lantzen ditugu. Berdintasuna, gizonen eta emakumeen ezaugarriak, banakotasuna, erabakitzeko askatasuna, ugaritasuna eta batez ere aniztasuna. Ez bakarrik kultur aniztasuna sexu aniztasuna ere bai. Gero, bestetik gure banakotasun horrek, gure ezaugarriek eta sexu definizioek ez gaituzte inolaz ere beste maila batean kokatu behar. Berdintasunaz aritzen gara eta elkarrizketa ugari izaten ditugu umeekin. Betiere, elkarrizketa hauek egokiak eta ulergarriak izan behar dira haurrentzat. Baina oinarritik sendotu beharra dago berdintasunean eraiki beharreko ikuspegi hori.

Curriculum proiektuaren barruan agertzen da, bertan islaturik dago eta araututa dago. Baina bestetik, ezkutuko curriculum dago. Hau da, irakasleen jarrerak, balioek eta ezaguerak garrantzia handia dute prozesu horretan. Hortaz, unitate didaktiko guztien barruan lantzen ditugu gaiak eta batez ere, egunerokotasunean sortzen diren egoerez baliatzen gara, jorratzeko lantzeko eta ikuspegi hori zabaltzeko umeengan. Haien ere, ulertu dezaten berdintasunean oinarritutako gizarte duin bat posible dela. Horregatik, gela barruan saiatzen gara gizarte horren nolabaiteko praktika bultzatzen. Hori egiteko, lehen esan bezala, unitate didaktiko batzuetan agertzen zaizkigu gaiaren inguruan elkarrizketa batzuk sustatzeko zenbait jarduera eta hauek ere, erabiltzen ditugu: euskarri grafikoak, elkarrizketak, galdetegiak, taldearen hausnarketa orokorra... gero guk gai hauek bideratu ahal ditugu eta haiei jakinarazi zein izan daitekeen jarrera egokia. Baina hori posible izateko, haientzat ulergarria izan behar du eta horretarako irakaslearen lana beharrezkoa da.

Bigarren galderari erantzunez, zentroan osotasunean lantzen dela esango nuke nik baina lanketa sakonagoa behar du eta beharrezkoa da. Ez bakarrik gure ikastolan, hezkuntza komunitate osoan baizik. Helburu orokor batzuk finkatu beharko genituzke. Dena den, gaur egun planak daude baina plan horiek aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa da plan hauek nolabaiteko metodologiaren bitartez bultzatzea eta metodologia hori finkatzea, ezartzea eta erabiltzea. Horrela, oinarriak edo teorikoak diren ildo guzti horiek praktikan jartzeko.

Azken galderari erantzunez, uste dut landu beharrezko lehentasunezko gaiak direla eskola leku pribilegiatua delako aldaketa handiak hasteko. Baina ere berean, berak ezin dio lan horri bakarrik heldu. Beste erakunde edo gizarte eragile batzuen laguntza formalagoa behar du. Eta hemendik abiatu daiteke aldaketa hori. Horretarako, euskarriak behar ditu eta sendoa izango den gizarte horren zutabeak eraikitzen lagundu behar du gurasoak, haurrak komunitatea, gizarte eragile formalak... barne hartuta.

- 7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Orain arte ez. Baina izango banu, lehenik eta behin, zuzenduko nuke. Gero, taldearekin arituko nintzateke gaiaren inguruan. Beharizan bat iruditzen zait jarrera guzti horiek baztertzea. Izan ere, desegokiak dira eta hurrek ikasi behar dute. Baina inposatu gabe, jarrera bat bultzatu behar da haurrengan. Inposatutako jarrerak direnean, emaitzak ez dira positiboak izaten. Lanketa egin beharko litzateke taldearekin umeez horretan parte hartuz. Izan ere, aldaketa hori beharrezkoa eta posiblea dela sentitu behar dute

- 8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Ikuspegiak bateratuko nituzke. Askotan iruditzen zait, irakasle bakoitzak bere lanketa pertsonala egiten duela. Beraz, guztien arteko koordinazioa egon beharko litzateke lana komunean jartzeko eta guztien arteko helburuak definitu ahal izateko. Horretarako, metodologia edo plan estrategikoren bat ezarri beharko genuke. Era berean, gizarte osoak parte hartu beharko luke, gizarteak ere, aldaketa hori behar duelako.

- 9- Hitz egin al duzue inoiz familiarekin eskolan hezkidetzaz lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?**

Bai, azpimarratzen dugu eta gurasoei adierazten diegu eragile garrantzitsua dela familia, bertan abiatzen dela prozesua eta guk gauza asko aldatu ditzakegula baina familiaren laguntza eta babesa behar dugula. Hau da, bi norabideetan ematen da. Hortaz, desoreka egongo litzateke eskolak modu batean landu eta etxean beste ikuspegi bat bultzatuko balitz.

Nire ustez, gurasoak inplikatzeko lortzen dugu gehienetan. Hala ere inplikazio hori areagotzeko formakuntza saioak, tailerrak, mintegiak eta ikasketa aukera ugari zabalduko nituzke gurasoek zuzenean parte hartu dezaten. Izan ere, aktiboki parte hartzen badute, prozesu hori areagotu egingo da. Aitzitik, guk aipamenak egiten

badizkiegu soilik eta gurasoak inplikatzan ez badira eta zuzenean parte hartzen ez badute, prozesu hori ahuldu eta desorekatu egingo da.

**10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Ez.

**ELKARRIZKETA: HAUR HEZKUNTZAKO IKASKETABURUA (IK)**

---

**1- “Hezkidetza” esaten badizut, zer etortzen zaizu burura?**

Genero berdintasuna etortzen zait burura. Baina gauza bat da teoria mailan eta gero praktika mailan. Izan ere, praktika mailan ez dut hain polit ikusten.

**2- Gaiaren inguruan, zer nolako bilakaera ezagutu duzu?**

Beno ba nik Lehen Hezkuntzan 4 urte egin nituen lehenengo eta azkeneko 16 urteak, Haur Hezkuntzan eman ditut. Nire ustez, bilakaera badago baina oso astiro doa. Egia da gauza batzuk aldatzen doazela, baina nik ez dut uste bilakaera handirik egon denik.

**3- Genero berdintasunean hezteko orduan zer nolako formakuntza izan duzu? Nolako zen ikasten ari zinenen? Eta gero, profesional moduan? Eta ez baduzu izan, nola formatu zara? Horretarako tresnaren, programaren edo materialaren bat izan duzu eskura? Zein?**

Formakuntza alorrean apur bat han-hemenka ibili naiz. Niri gaia interesatzen bazait informatu egiten naiz, baina norbera arduratzen da horretaz. Nik neuk ez dut formakuntza berezirik jaso. Hortaz, intuizio hutsez funtzionatzen dut. Hau da, nire ideologia edo pentsamoldearen arabera egiten ditut eginbeharreko guztiak. Hala ere, uste dut agian ez dudala formakuntza zehatzik behar (edo agian bai, ez dakit). Baina argi daukat zelan jokatu behar dudan ume batek adibidez “hau neskontzat/mutilentzat” dela esaten duenean: hau jolas bat da eta guztientzat da esanez.

**4- Hezkidetzaz hitz egiten dugunean, generoari buruz ere hitz egiten ari gara. Generoari buruz jarrera edota identitate desberdinak eraiki daitezke inguruan hautematen ditugun hainbat faktoreen ondorioz: neskei edo mutilei desberdin hitz egitean, koloreak sexu desberdinei esleitzean... Zelan edo zeren bitartez uste duzu eskolak eragiten duela Haur Hezkuntzako ikasleen generoaren eraikuntzan?**

Nik uste dut, denok genero berdintasuna zer den berdin ulertuko bagenu (niretzat agian gauza bat delako eta zuretzat beste bat) aspektu hau hobetuko litzatekeela. Eskolan nire ustez, ahalegin berezia egiten da ikasle guztiak berdin tratatzeko. Gero beste kontu bat da guk zer nolako ereduak eskaintzen dizkiegun umeei. Ez eskolan bakarrik baizik eta familietan. Izan ere, askotan ikusten ditut eredu tradizionalak horietan. Adibidez, aita beti semearekin futboleko jolasten egotea edo San Mamesera joatea eta ama alabarekin sukaldeetara jolasten gelditzea. Hori gaur egun, gertatzen den zerbait da. Nik oso gutxitan ikusi dut adibidez, aita bat parkean alabarekin dendarietara edo bazkaria prestatzera jolasten. Gu eskola bezala hori leuntzen saiatzen gara baina etxeko ereduak oso inportanteak direnez, ez daukagu hainbesteko indarririk hori nolabait orekatzeko eta ez dut uste gauza handirik lortzen dugunik.

Hala ere, aitortu behar dut mutilezkoen Athletic taldea finalera joan zenean, ikastolan egundoko jaialdia egin genuela ikastola maila osoan. Neskek mutilezkoen mailan irabazi zutenean aldiz, ikastolan ez zen ezer egin. Agian modu horretan bultzatzen ditugu desberdintasun horiek. Dena den, guk Haur Hezkuntzan bai egin genuen, megafonia atera nuen eta Athletic taldearen kanta ipini nuen nesken garaipena ospatzeko.

**5- Neska batek zaintza eta laguntza ekintza bat burutzen du etxe txokoan. Adibidez, umetxoari biberoia eman eta tenperatura hartu. Jarrera hori positiboki indartzen diozu. Beste egun batean mutil batek egiten duela ikusten duzu eta zugaran izan duzun lehen emozioa edo jarrera sorpresa izan da. Identifikatuta ikusi al zara inoiz honekin?**

Ume hauek jolastera ohituta daude. Hala ere, neska eta mutil batzuegan bai sentitu dudala sorpresa, oso barneratuta baitaukate eta Haur Hezkuntzan ez hainbeste. Lehen Hezkuntzan aldiz, gaur egun XXI. Mendean normalean bai ikusten duzula hazten direla esaten “hau neskena/mutilena da”.

**6- Haur Hezkuntzan generoa eta sexu aniztasuna bezalako gaiak, agertzen edo lantzen dituzue zure gelan? Eta zentroan? lantzea lehentasunezko gaiak izan beharko liratekeela uste duzu? Zergatik?**

Bai.Orain dela hilabete gutxi transexualitatearen kanpaina atera nuen ziklo bilera batean. Nik uste dut normaltasunez tratatu beharreko gai bat dela. Modu berean nik materiala pasa nien irakasleei. Izan ere, lau urteko gelan neskaren eta mutilaren gorputza lantzen zeuden eta gai hori umeak traumatizatu gabe landu zen gauzak argi eta

garbi esanez: neska askok alua dute baina beste batzuk zakila dute. Eta mutilen kasuan berdin. Guzti hau naturaltasunez egin zen.

Zentroari dagokionez, ez dugu gai hau lantzeko plan espezifiko bat. Izan ere, ez dugu izan gaia jorratzeko zailtasunik. Hala ere, zailtasun bereziren bat edukiko bagenu diseinatuko litzateke. Adibidez, imajina ezazu ume transexual bat dugula klase batean. Orduan bai diseinatuko litzatekeela. Baina aldeaz aurretik ez dugu holakorik izan. Hortaz, momentuan momentuzko erabakiak hartuko genituzke. Bestela, ez.

Lehentasunezko gaiak izatearen inguruan, guztiz ados nago landu beharreko gaiak direla. Modu horretan, umeak gustura sentituko lirateke euren erabakiekin eta umeen bazterketa ekidituko genuke.

**7- Izan duzu inoiz femeninoegia izateagatik edo gizarteak inposatzen dituen genero estereotipoetara ez egokitzeagatik baztertuta edo iraindua izan den umerik zure ikasgelan? Horrela izan bada nola landu duzu egoera hori? Ez baduzu izan, zelan landuko zenuke?**

Ez. Baina izango banu guztia normaltasunez landuko nuke. Niretzat normala baita. Dena den, segun bakoitzarentzat “normala” zer den, ikuspuntua aldatu egiten da. Ni ultra katolikoa baldin banaiz ba gauzak ez ditut berdin ikusiko.

Gu saiatu behar dugu indar gehiena edo indar guztia “desberdinak” diren umeak baztertuta sentitu ez daitezen aspektuan ipintzen. Ez soilik femeninoegia izateagatik edo bere kondizio sexualagatik. Baizik eta herrena, betaurrekoduna edo gorra izateagatik. Nik kategoria guztiak sartzen ditut hor.

**8- Aurreko galderan aipatutako egoera horiek ekiditeaz eta lantzeaz gain, zer gehiago egin behar du irakasle batek bere aldetik eskola hezkidetzagilea lortzeko eta genero berdintasunean hezteko? Eta eskolak bere osotasunean, zer egin behar du?**

Gu irakasleok oso zentratuta egoten gara gure klaseko errealitatean. Hau da, gure umeengan eta irakatsi behar dugunean beste hainbat gauzen artean. Oso garrantzitsua da burua altxatzea eta gure inguruan dauden beste errealitateak ikustea. Gure gelara transexuala edo beltza den ume bat baldin badator, ba bideoen bitartez edo hitz egiten landu dezakegu ikasleekin. Azken finean hori da daukagun material bakarra.



**9- Hitz egin al duzue inoiz familiekin eskolan hezkidetza lortzeko euren inplikazioak duen garrantziari buruz? Zelan edo zeren bitartez inplikatu daitezke (edo inplikatzeko dituzue)?**

Familia eskola eta umea nik beti hiru hankadun aulki bat bezala ikusten dut. Hau da, ondo orekatuta egon dadin, hanka guztiak egon behar dira. Adibidez, umea homosexuala bada eta nik ikusten badut eta familiak ez, aulki hori erortzen da. Edo aldrebes, familiak ikusten du baina eskolak ez du onartzen. Horren ondorioz, erabaki eta pauso guztiak bat joan behar dira familia eta eskolaren artean. Hala ere, inplikazio hori lortzea ez da erreza, adibide gisa (ez da kasu erreala) gerta daiteke familia askok ez ikustea edo ikusi nahi ez izatea ume bat “ez-ohikoa” den orientazio sexuala duela. Hala ere hemen laguntza ematen zaie, hori oso erraza da. Familiaren bat arazoren batekin baldin badator (berdin zait zein arazo) laguntza osoa eskaintzen zaio.

Horretaz aparte, guk gure bolumenagatik ezin ditugu inplikaziorako gauza askorik egin. Adibidez, suhiltzailea den ama bat ikastolara ekartzea bere lanbidea umeei azaltzeko. Gustatu, noski gustatuko litzaigukeela baina...

**10- Gai honen inguruan beste zerbait bururatzen al zaizu edo beste zerbait komentatzea gustatuko litzaizuke?**

Bai. Generoaren inguruan pauso asko egin direla uste dut baina oraindik asko geratzen dela. Gurasoen partetik bereziki, mentalitatea aldatu dezaten. Rolak oso markatuta baitaude, estatistiketan emakumezkoek etxeko kontuei gizonezkoek baino denbora gehiago dedikatzen dizkietela agertzen baita. Horregatik, bertan bizi den umea, hori ikusiko eta barneratuko du. Hortaz, familiarekin asko landu behar da.

## 9. Eranskina: Kategoriak

KATEGORIAK	EMAITZAK	
<p>IRAKASLEEN FORMAKUNTZA FALTA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Formakuntza berezirik, espezifikorik, ez. (Hitzaldi bat).</li> <li>• Honen inguruan bereziki, ez. Profesional moduan zenbait artikulua eta liburu irakurri ditut eta gauza batzuk praktikan ipintzen saiatu naiz.</li> <li>• Begirale ikastaroko hezkidetzak blokeak. Unibertsitatean noizbait entzundakoa.</li> <li>• Nire garaian ikastetxean Etika ematen zen baina bereziki hezkidetzak hitzarekin edo berdintasunaren inguruan zerbait zehatz landu izana ez dut gogoratzen.</li> <li>• Ez dut berdintasunean edo hezkidetzan oinarritutako ikasgai edo formakuntza saio zehatzik izan ez eskolan ezta unibertsitatean. Nik behintzat ez dut gogoratzen. Profesional moduan, bakoitzak dakiena jartzen du abian.</li> <li>• Unibertsitatean, zuzenean irakasgaietan ez dugu lanketarik egin. Beti izan dira zeharkakoak. Nik mintegi</li> </ul>	<p><u>HEZKIDETZAREN DEFINIZIOA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Diskriminaziorik ez dela egon behar, denok berdina gaitza...</li> <li>• Pertsonen hezkuntza, generoan oinarritu barik.</li> <li>• Berdintasunean edo genero berdintasunean hezteko teoria edo dena delakoa.</li> <li>• Hezkidetzak niretzat berdintasuna da, bai mutil eta bai nesken artean. Baina bueno, arlo guztietan ere bai: lan munduan, eguneroko zereginetan...</li> <li>• Genero desberdintasuna gainditu eta batez ere, pertsona guztien berdintasunean oinarritzen den hezkuntza sistema bat. Genero desberdintasunak kanpoan uzten dituenak eta pertsonak hartzen dituenak oinarri, inolako bereizketarik gabe.</li> <li>• Genero berdintasuna etortzen zait burura. Baina gauza bat da teoria mailan eta gero praktika</li> </ul>

	<p>ezberdinetan eta formakuntza saioetan parte hartu dut. Mintegi horiek Eusko Jaurlaritzak eta Berritzeguneak antolatutakoak zein gidatutakoak ziren.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Formakuntza alorrean apur bat han-hemenka ibili naiz. Niri gaia interesatzen bazait informatu egiten naiz, baina norbera arduratzen da horretaz. Nik neuk ez dut formakuntza berezirik jaso.</li> </ul>	mailan.
<p>HEZKIDETZA ETA SEXU ANIZTASUNA LANTZEAREN BEHARRA: JORRATZEKO METODOEN ETA EZAGUTZEN FALTA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aldaketa materialak.</b> Orain, beste pauso zailago bat: estereotipoak eta urteetan finkatu dizkiguten eta ditugun ohiturak pixkanaka apurtzen saiatu.</li> <li>• Poliki-poliki denon laguntzaz <b>azalpenekin</b> eta <b>adibide errealak</b> ipiniz aldatzen joan behar dugu.</li> <li>• Bai. Gizarteak aldaketa handiak izan ditu. Momentu batean <b>Haur Hezkuntzan oso txikiak</b> dira.</li> <li>• Haiek ulertu ahal duten neurrian, gehiago ez nahasten saiatuz, <b>naturaltasunez eta konfiantzaz azalpenak</b> jaso behar dituzte (<b>Elkarrizketak bideratu</b>).</li> <li>• Femeninoegia den ume bat ikusiz gero, berdin du zergatik baztertu, <b>gaia sakonean</b> landuko genuke <b>enpatia</b> aprobetxatuz.</li> <li>• Irakasleok <b>aukerak eman</b> behar ditugu. <b>Naturaltasunez lagundu</b> behar dugu eta gizartean bere lekua topatzeko <b>estrategiak eskaini (eskolak bere osotasunean zer egin dezakeen inguruan erantzunik ez)</b>.</li> <li>• <b>Kanpainak</b> egin eta <b>jendea kontzientziatu</b> behar dugu.</li> <li>• “<b>Genero berdintasuna</b>” kontzeptua “<b>makillatuta</b>” dagoela uste dut.</li> <li>• Gaur egun gizartean ez dago barneratuta, <b>emakumea ez dago errekonozituta</b>.</li> <li>• <b>Guztiak berdin tratatzen, balore berdinak irakasten eta guztien artean berdintasuna goraiatzeko saiatzen naiz.</b></li> <li>• <b>Ume bakoitza nolakoa den ikusten</b> ahalegintzen naiz, ez ume bakoitza zer den (neska edo mutila).</li> </ul>	

- **Egunerokotasunean lantzen** dugu. Eskolari dagokionez, bere osotasunean ez dakit bakoitzak zein programan daukan.
- Ez zait esandakoaz aparte ezer gehiago bururatzen. Baina uste dut **orokorrean planteatutako gauza** bat izan beharko litzatekeela, ikastetxe handia garelako.
- Bai eskolak baita irakasleek zerikusi asko dugu honekin. **Eskolan** neska eta mutilaren **bi rol horiek asko banatzen dira** (umeei printze edo printzesa esan, zenbait ospakizunetan eskolak “gela bakoitzeko neska bat eta mutil bat” esatea...).
- **Gelan eta eskolan ez dago gai zehatz bat berdintasuna edo hezkidetzaz lantzen duena.**
- **Zentroari dagokionez, berez ez dago zerbait sortuta** gai hau lantzeko.
- **Kanpainak etortzen direnean** adibidez emakumearen eguna, sexuari eta genero identitateari lotutako **errespetua lantzen da.**
- **Ni askotan saiatzen naiz, ez dakit ondo edo txarto dagoen** baina neska bat etxe txokoan beti printzesaz mozarrotu nahi bada, ba saiatzen naiz esaten, **“gaur zergatik ez printzea?”**.
- Nahiz eta orain emakumezkoek pisu gehiena edo handia duten kasu asko egon, **orain lana banatuagoa** dago.
- **Unitatearen arabera, badaude unitate didaktiko batzuk** adibidez, gorputza lantzen dutenak. Hor bai landu ahal dela, batez ere lau eta bost urteko gelan. Orduan hor bai **bideratu** ahal duzula, **elkarrizketaren batekin edo.**
- **Zentroan bere osotasunean hartuta,** ba **ez da lantzen** ez baitago guztiok modu berdinean gai hau jorratu ahal izateko programaren bat edo ezer prestatuta.
- Lehentasunezko gaiak izateari dagokionez, bai. Askotan **eraso batzuk ekidin ahal izateko** garrantzitsua da. Ume batek adibidez mantala arrosa ekartzen badu, besteek barrerik ez egiteko eta halakoak.
- **Ipuin bat, Horma-irudia...** beste aukera bat izan daiteke, **beraiei motibagarria eta hurbila iruditzen zaien zerbait.**
- Aldaketa asko egon diren arren, **datuek diote oraindik aldaketa sakonagoa izan behar duela emaitzak ez baitira egokienak.** Izan ere, desberdintasun ugari daude eta handiak dira gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Gainera, **hezkuntza sistemak horiek indartzen**

	<p><b>ditu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezin dugu ukatu gizarteak eskolan duen eragina eta desberdintasun hauek ere hezkuntzan islatzen dira. Beraz, <b>leku pribilegiatua</b> da eskola aldaketa guzti hauek sustatzeko.</li> <li>• <b>Unitate didaktiko guztien barruan</b> lantzen ditugu gaiak eta <b>elkarrizketa ugari</b> izaten ditugu umeekin (<b>euskarri grafikoez, elkarrizketez, galdetegiak, taldearen hausnarketa orokorrez...</b>) eta <b>egunerokotasunean sortzen diren egoerez</b> baliatzen gara .</li> <li>• Zentroan osotasunean lantzen dela esango nuke nik baina <b>lanketa sakonagoa behar du.</b></li> <li>• Lanketa egin beharko litzateke taldearekin umeek horretan parte hartuz.</li> <li>• Ikuspegiak bateratuko nituzke. <b>koordinazioa</b> behar dugu eta <b>metodologia edo plan estrategikoren bat ezarri.</b></li> <li>• Nire ustez, <b>bilakaera badago baina oso astiro doa.</b> Egia da gauza batzuk aldatzen doazela, baina nik ez dut uste bilakaera handirik egon denik.</li> <li>• Athletic taldea finalera joan zenean, ikastolan egundoko jaialdia egin genuen ikastola maila osoan. Neskek mutilezkoen mailan irabazi zutenean aldiz, ikastolan ez zen ezer egin.</li> <li>• <b>Transexualitatearen kanpaina</b> atera nuen ziklo bilera batean. Nik materiala pasa nien irakasleei. <b>Naturaltasunez hitz eginez</b> landu zuten.</li> <li>• Gure gelara transexuala edo beltza den ume bat baldin badator, <b>ba bideoa bitartez edo hitz egiten landu dezakegu ikasleekin. Azken finean hori da daukagun material bakarra.</b></li> <li>• Familiarekin asko landu behar da.</li> </ul>
<p>IRAKASLEEK HEZKIDETZA ETA SEXU ANIZTASUNA JORRATZEKO ORDUAN DITUZTEN USTE OKERRAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolak baino, <b>familiak du desberdintasunak sortzeko eragin gehien.</b></li> <li>• Gelan <b>trabarik ipintzen ez dizkigutenez eta frogatzen uzten diegunez,</b> oso normala da umeak sukaldean lasaitasunez esperimintatzea, printzesez mozorrotzea, takoiekin ibiltzea eta rol ezberdinak hartzea.</li> <li>• <b>Irakasleak</b> dira eskolan generoaren eraikuntza hori apurtzeko <b>arduradunak.</b></li> <li>• <b>Eskolak berak ez du ikasleen generoaren eraikuntzan eragiten.</b> Familien asuntua da, <b>etxetik datorren zerbait.</b></li> <li>• “Zuk ezin duzu jolastu, neska zarelako” <b>hori guk ez dugu transmititzen,</b> eskola kolektiboa da eta ume bakoitzak kanpotik ekartzen ditu ezaugarri horiek. Hau da, familiatik datorren edo kanpoko zerbait da.</li> </ul>

- **Momentu honetan umeak oso txikiak dira, 3 urte dituzte.** Beraz, aipamenekin eta egunerokotasunean lantzen dugu.
- Inoiz izan dut genero batekin gehiago identifikatzen zen neska edo mutila baina bereziki, **ez dut ezer landu arazorik egon ez delako.**
- Nik hezkidetzaren terminoa orokortuko nuke. Eta hori bai, **egunero lantzen da:** errespetua, berdintasuna... “Hau neskena da” esaten badute, nik guztiena dela esaten diet.
- Errespetuan eta berdintasunean lantzen dut. Hau da, bakoitza sentitzen denarekin eta gustura dagoenarekin errespetatzearekin (barre egin diotenari **besteen mailan ipini, bakoitzaren idazteko erritmoak errespetatu behar direla esan...**).
- **Detale txikiekin** desberdintasunen kutsu hori aldatu ahal dugu. **kanpaina zehatz bat egin beharrean, egunerokotasunean oinarritu** beharko ginateke.
- Eskolak berez, **Haur Hezkuntzan nik ez nuke esango horrelako desberdintasunak transmititzen dituenik.** Eginez gero, **gu geu, irakasleak** gara azken batean transmitituko genituzkeenak. Hau da, **gure esku dago dena.**
- Guztiontzat dela esaten diezu, jostailuak direla eta mutil batek panpina eta hori paseatzeko karroa eskatu ahal duela eta neskak kamioia eskatu ahal duela. Horrela “apurketa” hori egiteko. **Hiru urteko gelan aldiz, nire ustez hori ez da hainbeste ematen.**
- Bai gelan edo patioan ikusten dituzun arazoak oinarri hartuta, haurrekin **hitz eginez nik uste dut tratatu ahal direla** (jostailuak guztientzako direla...).
- **Haur Hezkuntzan gai hau tratatzeko zailtasun gehiago daude Lehen Hezkuntzan baino, umeek gai hori 3, 4 eta 5 urterekin ulertzeko zailtasun gehiago dituztelako.**
- Uste dut agian ez dudala formakuntza zehatzik behar (edo agian bai, ez dakit). Baina argi daukat zelan jokatu behar dudan ume batek adibidez “hau neskontzat/mutilentzat” dela esaten duenean: **hau jolas bat da eta guztientzat da esanez.**
- Zentroari dagokionez, ez dugu gai hau lantzeko plan espezifiko bat. **Izan ere, ez dugu izan gaia jorratzeko zailtasunik. Hala ere, zailtasun bereziren bat edukiko bagenu diseinatuko litzateke.**

ESKOLA, FAMILIA ETA KOMUNITATEAREN ARTEKO  
INPLIKAZIO FALTA

- **Ofizialki, gure zikloan ez.** Baina nagusienak bai inplikatzen dira. Hala ere, gure hezkuntza proiektuan, misioan eta balioen artean, bai.
- Ez dugu planteatu gure **guraso bilerak oso bideratuak** direlako. Beste planteamendu bat egon beharko litzateke gurasoen bilerak egiteko: tailerrak, ekintzak, hezkidetza taldean landu...
- Gai honen inguruan bereziki, **ez ditut gurasoekin elkarrizketarik izan.** Beti zentratu da umeen arteko harreman batean.
- **Zaila da hezkidetza lortzeko gurasoen inplikazioa lortzea,** baina lortu ahal da.
- Familien eta eskolaren arteko inplikazio hori **harreman publizitarioa da.** Ez dago harreman errealik. Gurasoekin oso ondo harremantzen naiz, baina gero ez dute hemen sartzeko aukerarik, zerbait falta da hor.
- **Bileretan guretzat inportanteak diren gaiak jorratzen hasi** beharko ginateke. Baina noski, guri ere bai **gidoi bat pasatzen digute** bilerak egiteko... oso bideratuak dira...
- Gaia ateratzen bada haiekin batzartzen naizenean bai. Baina bestela, **guraso batzarretan ez dago horrela puntu zehatz bat gai hori tratatzeko.**
- Egin daiteke. Adibidez, lanbideak lantzen ari bagara gurasoren bat etorri daiteke bere lanbidea azaltzera. Baina **ez da erraza edo ez da eskola honetako errealitatea.**
- **Eskolak ez du bakardadean edo isolaturik lan egin behar.** Izan ere, testuinguru, gizarte eta errealitate baten barnean dago eta familiekin, hurrekin, komunitate osoarekin zein hezitzaileekin aritu behar da lanean guzti hau aldatzeko.
- Azpimarratzen dugu eta gurasoei adierazten diegu eragile garrantzitsua dela familia, bertan abiatzen dela prozesua eta guk gauza asko aldatu ditzakegula baina familiaren laguntza eta babesa behar dugula.
- Nire ustez, gurasoak inplikatzea lortzen dugu gehienetan. Hala ere inplikazio **hori areagotzeko formakuntza saioak, tailerrak, mintegiak eta ikasketa aukera ugari zabalduko nituzke** gurasoek zuzenean parte hartu dezaten.
- **Guk gure bolumenagatik ezin ditugu inplikaziorako gauza askorik egin.** Adibidez, suhiltzailea den ama bat ikastolara ekartzea bere lanbidea umei azaltzeko. Gustatu, noski gustatuko litzaigukeela baina...